

GEROA

GEROA PENSIOAK, LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO
BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO ENTITATEAREN

ESTATUTUAK

2023/03/30etik

2023

www.geroa.eus

Lugaritz Pasealekua 27 - 20018 Donostia

T. 943 31 70 22 / F. 943 31 72 80

I. TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK	3
1. ARTIKULUA. ERAKETA ETA AURREKINAK.....	3
2. ARTIKULUA. IZENDAPENA ETA EGOITZA SOZIALA	3
3. ARTIKULUA. HELBURUA.....	4
4. ARTIKULUA. IRABAZTEKO HELBURURIK EZ.....	4
5. ARTIKULUA. LURRALDE-EREMUA ETA IRAUPENA	4
6. ARTIKULUA. NORTASUN JURIDIKOA ETA JARDUTEKO GAITASUNA	4
II. TITULUA: ATAL PERTSONALAK.....	5
7. ARTIKULUA. BAZKIDEAK ERAKUNDEAN SARTZEKO EDO ERAKUNDEKO KIDE IZATEKO ARAUBIDEA	5
8. ARTIKULUA. BAZKIDE ETA ONURADUN MOTAK.....	6
9. ARTIKULUA. BAZKIDEEN ERATZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.....	8
10. ARTIKULUA. BAZKIDE BABESLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK	9
11. ARTIKULUA. JARDUNEKO BAZKIDE OSO EDO ARRUNTEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.....	10
12. ARTIKULUA. ETENIK DAUDEN BAZKIDE OSO EDO ARRUNTEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.....	12
13. ARTIKULUA. BAZKIDE PASIBO ETA ONURADUNEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.....	12
14. ARTIKULUA. ESKUBIDE EKONOMIKOEN INTSULDAKETA	13
15. ARTIKULUA. BAZKIDE ARRUNTEN, BAZKIDE PASIBOEN ETA ONURADUNEN DEFENTSA	14
III. TITULUA: ERREGIMEN EKONOMIKOA.....	15
16. ARTIKULUA. ENTITATEKO BALIABIDE EKONOMIKOAK	15
17. ARTIKULUA. BAZKIDEEN EKARPEN ETA APORTAZIOEN ERREGIMENA.....	15
18. ARTIKULUA. ONDAREA	17
19. ARTIKULUA. ENTITATEAREN FONDOEN KUDEAKETA	17
20. ARTIKULUA. BAZKIDEEN ESKUBIDE EKONOMIKOAK.....	17
21. ARTIKULUA. BIDERAGARRITASUN TEKNIKOA.....	18
22. ARTIKULUA. ADMINISTRAZIO GASTUAK	19
23. ARTIKULUA. FONDOEN GORDAILUA.....	19
24. ARTIKULUA. IKUSKAPENA	19
IV. TITULUA: PRESTAZIOAK.....	20
25. ARTIKULUA. PRESTAZIO MOTAK	20
26. ARTIKULUA. PRESTAZIOEN ZENBATEKOA	22
27. ARTIKULUA. PRESTAZIOEN ORDAINKETA	22
28. ARTIKULUA. ALDI BATERAKO ERRENTAK KALKULATZEKO FINANTZA PARAMETROAK.....	26
29. ARTIKULUA. BIZIARTEKO ERRENTA GERORATUAK KALKULATZEKO PARAMETRO AKTUARIALAK	26
30. ARTIKULUA. JARDUERA ARAUAK PRESTAZIOEN ORDAINKETETAN ARRISKU ESTALDURAK KASU BEREZIAN.....	26

V. TITULUA: ENTITATEAREN GOBERNU-ORGANOAK. 28

31. ARTIKULUA. GOBERNU-ORGANOAK 28

32. ARTIKULUA. GOBERNU-ORGANOETAKO KIDE IZATEKO BALDINTZAK..... 28

33. ARTIKULUA. BATZAR OROKORRA: IZAERA ETA OSAKETA 28

34. ARTIKULUA. BATZAR OROKORREKO ORDEZKARIEN IRAUPENA, GERTATUTAKO HUTSAK ETA ORDEZPENA..... 29

35. ARTIKULUA. BATZAR OROKORRAREN EGINKIZUNAK 29

36. ARTIKULUA. BATZAR OROKORREKO BILKUREN MOTAK, DEIALDIA ETA QUORUMA 30

37. ARTIKULUA. BATZAR OROKORREKO AKORDIOAK31

38. ARTIKULUA. GOBERNU BATZORDEA: IZAERA ETA OSAKETA..... 32

39. ARTIKULUA. GOBERNU BATZORDEKO ORDEZKARIEN IRAUPENA, GERTATUTAKO HUTSAK ETA ORDEZPENA 32

40. ARTIKULUA. GOBERNU BATZORDEAREN EGINKIZUNAK 33

41. ARTIKULUA. GOBERNU BATZORDEAREN DEIALDIA..... 34

42. ARTIKULUA. GOBERNU BATZORDEKO AKORDIOAK..... 35

43. ARTIKULUA. LEHENDAKARIAREN EGINKIZUNAK ETA AHALMENAK 35

44. ARTIKULUA. LEHENDAKARIORDEAREN EGINKIZUNAK ETA AHALMENAK..... 36

45. ARTIKULUA. IDAZKARIAREN EGINKIZUNAK ETA AHALMENAK..... 36

46. ARTIKULUA. DIRUZAINAREN EGINKIZUNAK ETA AHALMENAK 36

47. ARTIKULUA. GOBERNU BATZORDEKO KIDEEN EGINKIZUNAK ETA AHALMENAK 36

48. ARTIKULUA. PLANEN JARRAIPEN BATZORDEAK. OSAERA 37

49. ARTIKULUA. JARRAIPEN BATZORDEAREN EGINKIZUNAK 38

50. ARTIKULUA. JARRAIPEN BATZORDEAREN DEIALDIA 38

51. ARTIKULUA. JARRAIPEN BATZORDEAREN ERABAKIAK 39

52. ARTIKULUA. KUDEAKETA TALDEA ETA BERE EGINKIZUNAK..... 39

VI. TITULUA: DIZIPLINAZKO ERREGIMENA 41

53. ARTIKULUA. HUTSEGITEAK 41

54. ARTIKULUA. ZIGORRAK 41

55. ARTIKULUA. ZIGORRAK EZARTZEKO PROZEDURA..... 42

VII. TITULUA: KITAPENA, BATEGITEA ETA ZURGAPENA 43

56. ARTIKULUA. KITAPENA..... 43

57. ARTIKULUA. KITAPEN-BATZORDEA 43

ALDI BATERAKO LEHENENGO XEDAPENA 44

ALDI BATERAKO BIGARREN XEDAPENA 44

ALDI BATERAKO HIRUGARRENGO XEDAPENA..... 45

AZKEN XEDAPENA..... 45

I. TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. ERAKETA ETA AURREKINAK

GIPUZKOAKO ENPRESARIEN ELKARTEAK (ADEGI) eta ELA, LAB, CCOO eta UGT Sindikatuek, aurrerantzean guztiek Bazkide Eratzaileak, borondatez osatu zuten Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitatea, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitateei buruzko Eusko Legebiltzarreko urriaren 27ko 25/1983 Legearen eta Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitateei buruzko Legearen Araudia onartzen den otsailaren 20ko 87/1984 Dekretuaren babesean, ezarri daitezken bestelako xedapenei eta Estatutu hauen arabera.

Aipatutako Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitatea, Gipuzkoako metalgintza-industriarako talde-hitzarmenean derrigorrezko izaera duen gizarte-aurreikuspeneko erregimena hitzartutakoaren ondorioz sortu da, beti ere Langile Estatutuaren 83.3 artikulua irispidearen barruan eta gizarte Segurantzako Lege Orokorreko testu bateginaren 39. artikuluan ezarritakoarekin adostasunean, ekainaren 20ko 1/1994 Errege Legegintza Dekretuak onartua.

2. ARTIKULUA. IZENDAPENA ETA EGOITZA SOZIALA

Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea GEROA PENTSIOAK LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO BGAE izenarekin eratu da (aurrerantzean, GEROA edo Erakundea).

Erakundearen egoitza honako helbide honetan dago: Lugaritz pasealekua 27 behea, 20018 Donostia, Gipuzkoa.

Gobernu Batzordeak Gipuzkoa barruan lekuz aldatzea erabaki dezake.

Erakundearen bazkide eratzaileak honako hauek dira:

- ADEGI, Mikeletegi Pasealekua 52, 20009 Donostia- San Sebastián, Gipuzkoa helbidearekin

Sindikatuak:

- ELA, Consulado kalea, 8, 20011 Donostia- San Sebastián, Gipuzkoa helbidearekin
- LAB, Pokopandegi kalea 9, 20018 Donostia- San Sebastián, Gipuzkoa helbidearekin
- CC.OO, Carlos I kalea 1, 20011 Donostia- San Sebastián, Gipuzkoa helbidearekin
- UGT, Catalina de Erauso kalea 7, 20010 Donostia- San Sebastián, Gipuzkoa helbidearekin

3. ARTIKULUA. HELBURUA

Entitatearen helburua honako hau da:

1. Bazkide oso edo arruntak honako kontingentzia hauen aurrean babestea: erretiroa, baliaezintasuna eta heriotza, eta, azken horren ondorio diren alarguntasuna eta zuztasuna, eta beste batzuk, baldin baleude. Haiei ordainduko zaizkie, bazkide pasiboen izaera ezagutzen zaienean, edo haien onuradunei, pentsioak eta dagozkien prestazio ekonomikoak, lehentasunez hileko errenta moduan.
2. Entitate-kideei gizarte-aurreikuspeneko aurrezpena egitera sustatzea, beraien eskubideak babestuz.

4. ARTIKULUA. IRABAZTEKO HELBURURIK EZ

Entitateak, bere izaeraz, uneoro irabazteko asmorik gabe jardungo du.

5. ARTIKULUA. LURRALDE-EREMUA ETA IRAUPENA

Entitateko jardueraren lurralde eremua Euskal Autonomi Erkidegoa da, autonomi erkidegotik kanpo dauden lantokiak sartzearen kalterik gabe, Euskal Autonomi Erkidego barruan hitzarmen sektorialak edo enpresa itunenen ondorioz ekarpenak egin behar badute.

Entitateak bere jarduera 1996ko urtarrilaren 9an hasi zuen eta bere iraupena mugagabea da.

6. ARTIKULUA. NORTASUN JURIDIKOA ETA JARDUTEKO GAITASUNA

Entitateak erabateko nortasun juridiko independentea du, baita ondasunak lortu, eduki, zergapetu edo besterenganatzeko gaitasuna ere; gainera, edozein egintza eta kontratu burutu dezake, baita lortu nahi dituen helburuekin lotutako xedapen-egintzak ere. Era berean prozedura egokiak bultza ditzake eta edozein erakunde publiko edo pribatu, komunitate, estatu, autonomi elkarte, probintzia edo udalerrri mailako erakundeen zein Auzitegi Administratibo eta Jurisdikzionalen aurrean dagozkien eskubide eta ekintzak gauzatu.

II. TITULUA: ATAL PERTSONALAK

7. ARTIKULUA. BAZKIDEAK ERAKUNDEAN SARTZEKO EDO ERAKUNDEKO KIDE IZATEKO ARAUBIDEA

Bazkidearen izaera izango dute Gipuzkoako metalgintzako sozietate eta enpresek, zeintzuk bertako langileak bezala -1995eko abenduaren 1eko Akordio Hitzarmenaren aplikazio-eremuaren barnean, Langileen Estatutuko 83.3 artikuluko gai jakinean edo hori ordezkatzeko duen beste batean daudenak (GAO, 96-01-03koa)-, nahitaez entitate honen eremuan sartuta geratuko diren -indibidualki ondorengo baiezpene edo onespene eman beharrik gabe-, Entitate honen eremuan, izaera hori izango dute, halaber, jarduera ekonomikoaren beste edozein sektoretako elkarte, enpresa eta langileek, egun eta aurrerantzean eta horrelako Akordioak betez, prestazio-erregimen honetan sartu beharko dutenak.

Era berean, bazkide izaera izango dute Euskal Autonomi Erkidegoko probintzi hitzarmen kolektibo ez duten enpresek eta bere langileek, borondatez atxikiko zaizkionak, Entitateko Gobernu Organoek onartu ondoren.

Nolanahi ere, diskriminaziorik ezaren printzipioa beteko da, eta bazkide oso gisa atxikitze aukera bermatuko zaie enplegatutako langile guztiei, baita lan-harreman berezia duten enpresa guztietako langileei ere.

Nolanahi ere, sektore edo enpresa berrien sartzeak nahitaez beharko du Entitatearen Gobernu Batzordearen adostasuna, Batzar Orokorreko kideak urteko bileran jakinaren gainean ezarriz. Bazkide Babeslearen izaera Entitatera atxikitako unetik hartuko da.

Bazkide arruntak, Entitatearen hurrengo planei atxikituko dira, araudi bakoitzean ezarritakoaren arabera:

GEROA PENTSIOAK I LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO GIZARTE AURREIKUSPENEKO PLANA. Plan honi Entitatearen Jarduneko edo Eteneko Bazkide Oso edo Arruntak atxikituko zaizkio. Era berean, bertan sartuko dira kapital moduan kobratuko duten edota 2015/07/1a baino lehenagoko Entitateko Estatutuen edo Araudiaren arauketaren arabera, prestazioa biziarteko errenta gisa kobratzeko eskubidea jaso duten onuradunak eta bazkide oso edo arrunt aktibo izan diren bazkide pasiboak.

GEROA PENTSIOAK II LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO GIZARTE AURREIKUSPENEKO PLANA. Plan horretan barneratuko dira prestazioaren kobrantza lehentasunez errenta moduan ezagutuko zaien erakundeko bazkide pasibo eta onuradun guztiak.

8. ARTIKULUA. BAZKIDE ETA ONURADUN MOTAK

Entitateko Bazkideak izan daitezke: Bazkide Eratzaileak, Babesleak eta Oso edo Arruntak. Bazkide Oso edo Arruntak, era berean, Jardunean edo Etenaldi egoeran egon daitezke edo Bazkide Pasibo izan daitezke. Bestetik, Onuradunak daude.

8.1. BAZKIDE ERATZAILEAK

Bazkide Eratzaileak (ADEGI) GIPUZKOAKO ENPRESARIEN ELKARTEA eta ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak dira, ondorio hauetarako helburu bakarra baitute: gizarte-aurreikuspen osagarriaren bidez aurrezpena bultzatzea.

8.2. BAZKIDE BABESLEAK

Zehaztutako atxikimendu-arauak beteta Entitatea sostengatzen eta garatzen laguntzen duten enpresak dira eta izango dira Bazkide Babesleak, beraiei dagozkien ekarpenak eta Entitatera sartutako ekarpenak bere langileriaren izenean eta kontutik Bazkide Oso edo Arrunten gisa gauzatuko dituztelarik.

8.3. BAZKIDE OSO EDO ARRUNTAK ETA ONURADURANAK

Bazkide Oso edo Arruntak jardunekoak, etenaldi egoerakoak edo pasiboak izan daitezke. Maila hauen barruan, Adimen Urritu edo Gaixotasun Mentala duten Bazkideentzat zehaztasun bat ezartzen da.

8.3.1. BAZKIDE OSO EDO ARRUNTAK JARDUNEAN

Gipuzkoako metalgintzako enplegatu edo langile guztiak dira eta izango dira Jarduneko Bazkide Oso edo Arruntak -derrigorrez geratuko lirakeenak erregimen honen menpe-, banaka edo gerora berretsi behar izan gabe; hori guztia, Gipuzkoako metalgintza-industriarako aipatu Akordio Hitzarmenean edo hura ordezkatu duten bestelakoetan ezarritakoaren ondorioz; baita beste enpresa batzuen bidez ere -horrelako akordioak betez era loteslean atxikitzeko beharra dutenak edota, bestela, borondatez atxikitzen direnak-, Gobernu Organoek onartu eta gero.

Jarduneko Bazkide Oso edo Arruntak dira eta izango dira, dagozkion ekarpenak egiten ari diren langile guztiak.

Langileak, borondatezko edo derrigorrezko eszedentziaren edota behin-behineko ezintasunaren ondorioz, beraiekin mantentzen zuten lan harremanen Bazkide Babesleak, berak bere ekarpenak eten egiten dituzenez, Entitateri borondatezko ekarpenak pertsonalki edo zuzenean egiten dutenak Jarduneko Bazkide oso edo arruntak izango dira.

8.3.2. ETENIK DAUDEN BAZKIDE OSO EDO ARRUNTAK

Ondokoak dira eta izango dira Etenik dauden Bazkide Oso edo Arruntak: euren ekarpena osorik eten duten elkartekideak, beren Bazkide babeslearekin lan harremana eten dutenez, gertaera data baino lehen, baina euren eskubideei eusten dietela.

Era berean, Etenik dauden Bazkide Oso edo Arruntak izango dira euren ekarpena osorik eten duten elkartekideak Bazkide Babeslea eta bera izatetik utzi dutelako.

Ez dira izango etenik dauden Bazkide Oso edo Arruntak, enpresako bazkideak nahiz eta mantendu ezarritako derrigortasuna Akordio-Hitzarmen edo lehen aipatutako izaera bereko itunetan, dagozkion ekarpenak egiten ez dituztenak. Enpresa horiek berankortzat hartuko dira.

Adimen urritu edo gaixotasun mentala (adimen-atzeratasuna eta desoreka mentala) duen Bazkide Oso edo Arruntak.

Langileak, GEROAko bazkide izanik, erakunde eskudunak %33 edo maila altuagoako ezgaitasuna onarturik, Gizarte Segurantzak ezintasun iraunkor osoko edo maila altuagoko prestazio kontributiborik onartzen ez badie, Entitateari bere sailkapena Adimen urritu edo gaixotasun mentala duen Bazkide Oso edo Arruntak gisa eska dezakete.

Bazkide Oso edo Arrunt bat Adimen urritu edo gaixotasun mentaladun bezela sailkatzeko, Estatutu hauetan oinarrituz, beharrezkoa izango da eskudun Erakunde ofizialak igorritako ezgaitasun ziurtagiria aurkeztea.

Adimen urritu eta Gaixotasun mentaladun Bazkide Oso edo Arruntak dira eta izango dira, iharduera sektore ezberdinetatik eta lehen aipatutako egoeran izanik, egungo Entitatean derrigorrez barneratuko liratekeen langile guztiak, -indibidualki ondorengo baiezipen edo onespenerik eman beharrik gabe-, GEROAri atxikitutako sektore eta enpresentzat Hitzarmen-Akordio ezberdinetan ezarritakoaren ondorioz.

Adimen urritu edo gaixotasun mentala duen Bazkide Oso edo Arruntak, era berean, jardunean edo etenik dagoen bazkidea izango da, gainontzeko Entitateko Bazkide Oso edo Arrunten kontzeptu eta kasuetan bezala.

8.3.3. BAZKIDE PASIBOAK ETA ONURADUNAK

Entitateko Bazkide Pasiboak izango dira, Entitateko Estatutu eta Araudien arabera dagozkion prestazioak (erretiroa eta ezintasuna) jasotzeko eskubidea onartu zaien pertsona fisikoak, honen Bazkide Oso edo Arruntak izandakoak.

Onuraduntzat hartzen da, Bazkide Oso edo Arruntaren, edo Bazkide Pasiboaren heriotza gertatuta, Entitateko eskubide ekonomikoen hartzaile bihurtzen dena. Baldintza hau izango dute Entitateko Araudietan jarritako ordenaren arabera izendatutako pertsonak.

9. ARTIKULUA. BAZKIDEEN ERATZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

9.1. BAZKIDE ERATZAILEEN ESKUBIDEAK

- a) Entitatearen Gobernu Organoak eratzen dituzten kargu desberdinak izendatzea eta karguotarako izendatuak izatea.
- b) Entitatearen Gobernu Organoetako bileretan parte hartzea, beraien ordezkarien bidez.
- c) Entitatearen egoerari buruzko informazioa jasotzea. Uneoro eska diezaiokete informazioa Gobernu Batzordeari, idatziz edo ahoz, eta Gobernu Organoek ezingo diete uka.
- d) Entitatearen helburuekin lotutako eta horren funtzionamendua hobetzera bideratutako neurriak edo ekintzak proposatzea.
- e) Entitatearen Gobernu Organoen akordio eta erabakien aurka egoki iritzitako errekurso edo erreklamazioak planteatzea.
- f) Estatutuen erreforma edo aldaketarako beharrezkoa den adostasuna ematea, beste Entitate batzuekin elkartu, federatu edo entitaterik zurgatzeko eta BGAE desegiteko.
- g) Lege-arauetan, Estatutu hauetan eta Entitateko Araudietan onartu zaizkien gainerakoak.

9.2. BAZKIDE ERATZAILEEN BETEBEHARRAK

- a) Ezarritako prestazio ekonomikoak bideratu zaizkien azken Bazkide Oso edo Arrunten interes eta onura sozialaren alde, Entitateak eratutako inbertsio eta ondarea zaindu eta kontrolatu, beti ere baliabideen gestioa eraginkorra izan dadin eta administrazio garbia eramaten saiatuz
- b) Ezarritako edo etorkizunean ezar daitezkeen Lege-, araubide- eta estatutu-mailako xedapenak zehatz-mehatz bete daitezen zaindu.
- c) Entitatearen helburuak betetzeari eragiten dioten edo horiek hobe ditzaketen arloetan parte hartu eta laguntzea.
- d) 30.050 Euroko hasierako kuota ordaintzea Mutua Fondoaren kontzeptuan, Entitatearen eraketa, mantentze- eta garapen-gastuak estaltzekotan; betiere, 50.000 €ko gutxieneko globala errespetatuaz.
- e) Entitateko Gobernu Organoek balio osoz hartutako erabakiak betetzea.
- f) Entitatea garatzen lagun dezaketen alderdietan laguntzea.
- g) Lege-arauetan, Estatutu hauetan eta Entitateko Araudietan onartu zaizkien gainerakoak.

10. ARTIKULUA. BAZKIDE BABESLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

10.1. BAZKIDE BABESLEEN ESKUBIDEAK

- a) Entitatearen Gobernu Organoak eratzen dituzten kargu desberdinak hautatzea eta karguetarako hautatuak izatea, horretarako ezarritako moduren arabera.
- b) Entitatearen egoerari buruzko informazioa jasotzea. Uneoro eska diezaiekete informazioa Gobernu Batzordeari, idatziz edo ahoz, eta Gobernu Organoek ezin diezaiekete uka.
- c) Entitatearen Gobernu Organoen akordio eta erabakien aurka egoki iritzitako errekurtsio edo erreklamazioak planteatzea.
- d) Entitatearen Gobernu Organoetako bileretan parte hartzea, beraien ordezkarien bidez.
- e) Estatutu hauetan eta Entitateko Araudietan onartu zaizkien gainerakoak.

10.2. BAZKIDE BABESLEEN BETEBEHARRAK

- a) Dagokion Hitzarmenean, Bazkide Babesleak lan harremana duen Bazkide Oso edo Arrunta bakoitzeko derrigorrezko ekarpenak ezarritako portzentajerekin ordaintzea, bai bertako kideekin dituzten konpromisoei, bai banaka esleitutakoei dagokienean.
- b) Bere lan taldeko Bazkide Oso edo Arrunten ekarpenak egiteari mantentzea honako egoerak ematen direnean: (i) aldi baterako ezintasuna, edozein arrazoi dela medio, (ii) amatasuna, (iii) aitatasuna, (iv) haurdunaldiko arriskua, (v) edoskitze naturala bitarteko arriskua, (vi) aldi baterako enplegu erregulazio etendura eta era berean araudietan aurreikusitako gainontzeko egoerak.
- c) Bazkide Babesle langile taldearen azterketa egokiak (aktuarialak kasu) egiteko beharrezko datuak eskaintzea, beharrezkoak balira.
- d) Bazkide Babesle langile taldean gertatutako aldaketa guztiei buruz nahikoa aurrerapenez jakinaraztea.
- e) Gizarte-aurreikuspeneko sistemaren barruan eskatutako finantza oreka zehatz-mehatz eta uneoro bete dadin zaintzea.
- f) Lege-arauetan, Estatutu hauetan eta Entitateko Araudietan eskatutako eginbeharrak betetzea.
- g) Entitatearen garapena hobe dezaketen alderdietan laguntzea.

11. ARTIKULUA. JARDUNEKO BAZKIDE OSO EDO ARRUNTEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

11.1. JARDUNEKO BAZKIDE OSO EDO ARRUNTEN ESKUBIDEAK

- a) Entitateko Gobernu Organoen karguetarako hautatu edo hautatua izan berez edo bere ordezkarien bitartez Estatutu hauen arabera.
- b) Gobernu Organoen aldetik Entitatearen ondare-egoerari zein bere jarraipenari buruzko informazioa jasotzea, hauek uka ezin diezaieketelarik, informazioa emateak Entitatearen interes legitimoak arrisku larrian jarri ezean. Halaber, legalki ezartzen den bestelako informazio eskuragarri izango duzu.
- c) Entitateko Gobernu Organoen akordio eta erabakien aurka egoki iritzitako errekurtsio eta erreklamazioak aurkeztea.
- d) Entitateko Estatutu eta Araudien arabera Bazkide pasiboak eta/edo Onuradun gisa onartutakoan, jasotzeko eskubidea luketen prestazioak jasotzea.

- e) Entitateko ondare garbiaren zatiarekin osatutako kuotak sortutako eskubideak bere izenean eta banaka izendatzea, eta urtero eskubide horien egoerari buruzko egiaztapena jasotzea edo eskuragarri izatea.
- f) Bazkide Babeslearekin lan harremanak uzten denean, edozein arrazoi dela medio, hori sortzen duen estaldutako gertakizunetako bat baino lehen, egun horretaraino bere izenean sortutako eskubideak bere alde onartuak izatea, bakarka ekarpen gehigarririk ezin eginez, ondorengo g) sailean eta 14.2. artikuluan ezarritakoaren arabera ezik.
- g) Etenik dagoen Bazkide Oso edo Arruntaren sortutako eskubide ekonomikoak, intsuldaketa ezik, Gizarte Segurantzak derrigorrezko pentsioa onartutako garaian jaso ditzake, edo eta erretiroa hartzeko legezko adinean, une horretan Gizarte Segurantzan alta emanda ez dagoen bitartean. Oharketa, 27.1 artikuluan ezarritako moduan egin liteke.
- h) Lege-arauetan, Estatutu hauetan eta Entitateko Araudietan onartu zaizkien gainerakoak.

11.2. JARDUNEKO BAZKIDE OSO EDO ARRUNTEN BETEBEHARRAK

- a) Lan harremanak mantentzen dituen Bazkide Babesleak bere soldatatik hilero Hitzarmenean edo antzeko izaera duen ezarritako bestetik, langile kontura derrigorrezko banako ekarpen gisa ezarritako portzentaiarekin gauzatzen den zenbatekoa kentzea onartzea.
- b) Finantza azterketa egokiak egiteko, edo bestelakoak behar balira, eskatutako informazioa eskaintzea.
- c) Gobernu Organoek balio osoz hartutako akordioak betetzea.
- d) Lege-arauetan, Estatutu hauetan eta Entitateko Prestazio Araudietan ezarritako gainerako eginbeharrak betetzea.

12. ARTIKULUA. ETENIK DAUDEN BAZKIDE OSO EDO ARRUNTEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

12.1. ETENIK DAUDEN BAZKIDE OSO EDO ARRUNTEN ESKUBIDEAK

Etenik dauden Bazkide Oso edo Arruntek Jarduneko Bazkide Oso edo Arrunten eskubide berak dituzte, 11.1 a) eta 14. artikuluan ezarritakoaren salbuespenez.

12.2. ETENIK DAUDEN BAZKIDE OSO EDO ARRUNTEN BETEBEHARRAK

Etenik dauden Bazkide Oso edo Arruntek Jarduneko Bazkide Oso edo Arrunten betebeharrak dituzte, 11.2 a) ezarritakoaren salbuespenez.

13. ARTIKULUA. BAZKIDE PASIBO ETA ONURADUNEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

13.1. BAZKIDE PASIBO ETA ONURADUNEN ESKUBIDEAK

- a) Estaldutako gertakizunetakoren bat sortu ondoren onartutako prestazioak jasotzea, Entitateko Estatutu eta Araudiek Bazkide Pasibo edo Onuradun gisa onartu badute, eta beti ere bere izenean sortutako eskubideak badaude.
- b) Aurreko ekitaldian jasotako prestazioari buruzko informazioa eskuratzea eta bazkide oso edo arruntei zehaztutako informazio bera eskuragarri izatea.
- c) Estatutu hauetan, Entitateko Araudietan eta lege-arauetan onartutako gainerako eskubideak.

13.2. BAZKIDE PASIBO ETA ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Onuradunen betebeharrak honako hauek dira:

- a) Gobernu Organoak hartutako erabakiak betetzea.
- b) Datu pertsonalak eguneratzea eta Estatutu hauetan eta Entitateko Prestazio Araudietan eskatutako dokumentu guztiak ematea.
- c) Estatutu hauetan, Entitateko Araudietan eta lege-arauetan eskatutako gainerako eginbeharrak betetzea.

14. ARTIKULUA. ESKUBIDE EKONOMIKOEN INTSULDAKETA

Inongo Jarduneko Bazkide Oso edo Arruntak ezin izango du onartutako eskubide ekonomikoak beste Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitate batera intsuldatu.

Entitate honetako prestazioen Bazkide Pasibo eta Onuradunek, hots, dagozkion prestazioak jasotzeko eskubidea duten pertsona fisikoek, Entitateak onartuta baldintza hori, ezin izango dute, inolaz ere bere eskubide ekonomikoak beste Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitate batera intsuldatu, ondoko salbuespenarekin :

Barne dauden edozein kontingentzia gertatu ondoren, bazkideak Estatutuetan eta Araudietan ezarritako mugen arabera, prestazioa kapital moduan kobratzeko eskubidea edukiko balu, prestazio hori kobratzeko edo bere eskubide ekonomikoak beste Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitate batera intsuldatzeko aukera izango luke.

Entitateak eskubide ekonomikoen berreskuratze eskubidea ez du onartzen.

14.1. BESTE BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO ENTITATERA INTSULDATU

Etenik dauden Bazkide Oso edo Arruntek, beren eskubide ekonomikoak intsuldatu ditzazkete, dagokion Bazkide Babeslearekin edo Babesleekin beren lan lotura amaitzen dutenetik, bi urteko epea igaro ondoren.

Ondorioz, ez dira izango Etenik dauden Bazkide Oso edo Arruntak nahiz eta mantendu ezarritako derrigortasuna Akordio-Hitzarmen edo lehen aipatutako izaera bereko itunetan, dagozkion ekarpenak egiten ez dituztenak.

Intsuldaketak eskubide guztien arabera izan beharko du, eta lehentasunezko enpleguko beste plan batera bakarrik egingo da.

Ondorio guztietarako, intsuldaketa egiteko epea Gobernu Batzarraren eskabidea osorik aurkeztu ondoren lehen bilera egiten den egunetik hasiko da, hark baitu hura onartzeko edo ukatzeko ahala Erakundearen Estatutuetan ezarritakoaren arabera.

14.2. BESTE BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO ENTITATETIK DATORREN INTSULDAKETA

GEROako bazkide oso edo arruntei eskubide ekonomikoen sarrerako intsuldaketak onartuko zaizkie soilik, baldin eta lehentasunezko enpleguko beste plan batetik badatoz eta betiere Erakundearen Gobernu Batzarrak onartu ondoren, horrek definituko baitu, oro har, intsuldaketa horien sarrerako prozedura.

15. ARTIKULUA. BAZKIDE ARRUNTEN, BAZKIDE PASIBOEN ETA ONURADUNEN DEFENTSA

Bazkide Oso edo Arruntek, Bazkide Pasiboek eta Onuradunek eskubidea duten informazioa bide arruntetik lortu ezin badute, Gobernu Batzordeari zuzenduriko erreklamazio idatzia aurkeztu dezakete.

Eskaerak kudeaketa taldeak epe laburrean erantzungo ditu, Gobernu Batzordeari adieraziz bere hurrengo bileran. Erreklamazioa sartu zen egunetik 6 hilabetera ez badira erantzun gaitzetsizat hartuko dira eskatzaileak indarreko legeak onartzen duen bestelako ekintza aurrera eraman ahal izateko.

III. TITULUA: ERREGIMEN EKONOMIKOA

16. ARTIKULUA. ENTITATEKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Erakundearen baliabide ekonomikoak honako hauek osatuko dituzte:

- a) Bazkide Eratzaileek hasieran egindako ekarpen bakarrak Mutua Fondoaren edo Entitateko Erreserba Finantzario kontzeptuan. Ekarpen hauek itzulgaitzak izango dira.
- b) Entitateko erreserba finantzarioak.
- c) Entitateko ondarea kudeatzearen ondorioz lortutako errentak, sarrerak edo beste edozein errendimendu.
- d) Diru-laguntzak, dohaintzak, legatuak edota Entitateak jasotako beste edozein sarrera edo ondasun.

17. ARTIKULUA. BAZKIDEEN EKARPEN ETA APORTAZIOEN ERREGIMENA

17.1 Bazkide Babesleek, hurrenez hurren, bere izenean eta bere taldeko Bazkide Oso edo Arrunten izenean egin beharreko ekarpenak edo aportazioak, Entitateak horretarako ezarrita dituen kontu korrontetan sartuko dira hilabetero. Ekarpenek hurrengo betebeharrak bete behar dituzte:

- I. Bazkide Babesle eta Bazkide Oso edo Arruntaren ekarpen paritarioa.
- II. Zehaztutako ekarpen portzentaiak atxikitako sektore eta enpresako langile guztiei era berean eragingo die.

Ekarpen portzentaia Hitzarmen Akordioetan zehaztuko da. “Gai jakin bati buruzko akordioak” dira, Langileen Estatutuko 83.3. artikuluan edo estatutu hitzarmen kolektiboetan, enpresa arloan hitzartzen direnean, aintzat hartzen den moduan; Entitateko Prestazio Arautegietan ezarritakoaren arabera.

Edozein taldeko Bazkide Babeslea ekarpen eta kontribuzioak burutzen atzeratuz gero, konpromiso irmoa izanik, honek urteko interesa sortu ahal izango du eta uneoro Entitatearen Gobernu Batzordeak erabakiko du horri buruz. Bazkide Oso edo Arruntekin era berean jardungo da.

Bazkide Babesle eta talde ezberdinetako Bazkide Oso edo Arruntek egin beharreko ekarpenak edo kontribuzioak eta hauek ez betetzeak ekar ditzakeen erantzukizunak Estatutu hauek, Entitateak izango lituzkeen planen Prestazio Araudiek eta xede horretarako legezko xedapenak araupetuko dituzte.

Erabat ordaindu gabe geratzen diren ekarpenak izatezko edo eskubidezko enpresa enplegatzailearen kaudimen gabeziaren edo beste edozein arrazoiaren ondorioz, ez dira eskubide ekonomikoen barne izango, eragindako Bazkide Oso edo Arruntaren, Bazkide Pasiboaren edo Onuradunaren prestazio eskubidea sortutako unean. GEROAK ez ordainketa hauen estaldura ez du inolaz ere bere gain hartuko. Izatezko edo eskubidezko kaudimen gabeziaren ondorioz ordaindu gabeko ekarpenak Bazkide Babesle horri loturiko Bazkide Oso edo Arruntei bakarrik kaltetuko dizkie, beren ekarpenei eta beren prestazioei dagokionez.

17.2 Adimen urritu eta gaixotasun mentala duten Bazkide Babesle eta Bazkide Oso edo Arruntek burutu beharreko aldizkako ekarpena, gehienez ere, une oro bere Sektore edo enpresarentzat ezarritako portzentaiaren bikoitza izango da, langilearen oinarritzko kontingentzi arruntei dagokionez, beti ere beste ekarpenen parekotasun eta portzentaiak ezartzeko eraren baldintzak betetzen badira:

Entitateko Gobernu Batzordea arduratuko da kasu bakoitzean adimen urritu eta gaixotasun mentaldun langile taldearentzat ekarpenaren gehitzea onartzeaz, ze sektore edo enpresek eskatzen duten, eta urtero ospatzen den Batzar Orokorrari jakinaraziko dio.

17.3 EKARPEN OSAGARRI PERTSONALAK

25 urtetik gorako adinarekin ekarpenak egiten hasi diren GEROAko bazkide aktiboek eta lan-bizitzan ekarpenik egin ez duten aldiak izan dituztenek beren borondatez ekarpen osagarri pertsonalak egiteko aukera izango dute, honako baldintza hauekin:

- Ekarpen osagarri horiek egiteko unean langileari dagozkion ekarpenen zenbateko bera izango da hileko zenbatekoa.
- Ekarpen osagarriak egin daitezkeen hilabeteen kopurua honako 2 kontzeptu hauen batura izango da:
 - o 25 urtetik bazkidea GEROAn kotizazioak egiten hasi zen adinera arteko hilabete kopurua.
 - o Lan-bizitzan zehar bazkideak GEROAn kotizaziorik izan ez duen hilabete kopurua.

Gehienez ere hileko 12 ekarpen osagarri egin ahal izango dira urtean.

Ekarpen osagarri pertsonalen zenbatekoa osorik aurrezki-kapitalizazioko estalduretara bideratuko da, eta, arrisku-prestazioen kasuan, ez da kapital gehigarria kalkulatzeko zenbatuko.

18. ARTIKULUA. ONDAREA

Taldean sartutako langileriarekin eta bazkide bakoitzak sortutako prestazioak ordaintzeko Bazkide babesle bakoitzak egindako ekarpen edo kontribuzioen azken ondarea, hitzartutako gizarte-aurreikuspenari atxikia geratu da.

Entitatearen ondarea gauzatzeko finantza-aktiboak une oro baloratuak izango dira, indarrean dagoen araudian ezarritako irizpideen arabera.

19. ARTIKULUA. ENTITATEAREN FONDOEN KUDEAKETA

Ekarpenen bidez edota beste edozein modutan lortutako eta Entitatearen helburuak betetzera bideratutako baliabide ekonomikoak, Gobernu Organoek edota hauek izendatutakoek kudeatu eta inbertituko dituzte, Inbertsio Oinarrien Adierazpenean ezarritako segurtasun, likidezia, errentagarritasun eta epeen bateratasunezko irizpideen arabera eta legez ezarritako portzentai eta balio-motei buruzko baldintzak betez, ondoren horren berri Batzar Orokorrari emanaz.

20. ARTIKULUA. BAZKIDEEN ESKUBIDE EKONOMIKOAK

Bazkideen eskubide ekonomikoek prestazioaren zenbateko osoa adierazten dute, bazkide pasibo eta onuradunek izan dezaketen prestazio gehigarriaren eskubidea honen barne geratuko litzatekeelarik.

Eskubide ekonomikotzat hartzen dira Bazkide Oso edo Arruntak eta Bazkide Babesleak egin eta dagokionean Bazkide Oso edo Arruntari egotzitako aldizkako ekarpenek eta baliabideen kudeaketan sortutako etekinek eta gainbalioek osatzen duten ondare indibiduala, kudeaketa-gastuak kenduta eta dagozkion hornidurak zuzkituta.

21. ARTIKULUA. BIDERAGARRITASUN TEKNIKOA

Zuzkidura matematikoak

Entitateak hartutako betebeharrangatik nahiko zuzkidura matematiko uneoro eratuak izan beharko ditu.

Entitateak zuzkidura matematikoa urtero kalkulatu du eta aktuario profesional independente baten bidez. Erabilitako heriotza taulak eta interes tasa teknikoa Gobernu Batzordean ezarritakoak izango dira eta Batzarrak onartuak, indarrean dagoen araudiak finkatzen dituen mugen barruan.

Zuzkidura matematikoen finantzaketa

Entitateak mantenduko ditu aktibo nahikoak eta egokiak hartarako presta daitezen azterlan aktuarialetan zehaztutako zuzkidura matematikoak estaltzeko helburuz.

Indarrean dagoen araudiari jarraituz, hiru urtez jarraian beharrezko zuzkidura matematikoak estaltzeko adina funts eraturik ez dagoenean edo ekitaldi bakoitzean dauden funtsak zuzkidura matematikoen %90etik beherakoak direnean Entitateak berrorekatzeko plan bat egin beharko du ezarritako legezko irizpideen arabera.

Fondo propioak eduki beharra

Entitateak bere zuzkidura matematikoak gauzatzekoan baino aktibo gehiago izan behar ditu beti, erreserba modura. Aktibo horiek aurreikus daitekeen konpromiso orotatik libre egongo dira eta aurreikusitako eta benetako gastu eta prestazioen arteko desbideratzeak xurgatzeko segurtasun-marjina gisa erabili ahal izango dira.

Segurtasun-marjinak bi zenbaterako hauek izango ditu gutxienez:

- Hornidura matematikoen % 4.
- Bazkideak inbertsioaren arriskua bere gain hartzen duen ekarpen mugatuko aurreikuspen-planen lotutako hornidura teknikoen % 0,125. Erakundearen erabilera libreko erreserben kargura eratu ahal izango da marjina hori.

22. ARTIKULUA. ADMINISTRAZIO GASTUAK

Aurreikuspeneko Entitatearen funtzionamendu, administrazio eta kudeaketarako beharrezkoak diren gastuak Eusko Jurlaritzaren otsailaren 20ko 87/1984 Dekretuaren 16. artikuluan edota, hala badagokio, indarrean dagoenean ezarritakora egokituko dira.

Ezarri beharreko ehunekoa Entitateko Prestazio Araudi ezberdinetan zehaztutakoa izango da. Portzentai hau Entitateko Gobernu Batzordeko Akordioz aldatu ahal izango da Entitateak izango lituzkeen Prestazio Araudietan ezarritakoaren arabera.

23. ARTIKULUA. FONDOEN GORDAILUA

Entitatearen ekarpenak zein gainerako fondoak, Gobernu Batzordeak erabakitako Entitatean egongo dira gordailuan, ondoren Batzar Orokorrari adieraziz.

24. ARTIKULUA. IKUSKAPENA

Entitatearen finantza egoerak zein eranskin azalgarriak ikuskatu egingo dituzte aditu independenteek. Txostena Gobernu Batzordeari emango zaio eta honek Batzar Orokorraren esku jarriko du.

IV. TITULUA: PRESTAZIOAK

Araudi honek ondoko prestazioak arautuko ditu: Entitatearen Kobranta eskubidearen ezagutza data Estatutu hau indarrean sartu gerokoa denean.

Prestazio bat eskatutzat emango da, GEROAk eskatutako agiri guztiak entregatuak daudenean eta enpresak eginiko ekarpenak gauzatuak daudenean.

25. ARTIKULUA. PRESTAZIO MOTAK

Prestazioen funtsa izango da Erakundearen onuradunei edo bazkideei eskubide ekonomikoak onartzea, honek estalitako gertakizun baten ondorio gisa.

Hona hemen estalitako gertakizunak:

- Erretiroa
- Adimen urritu edo gaixotasun mentala duen bazkidearen erretiroa
- Ezintasun Iraunkor Osoa, Absolutua eta Baliaezintasun Handia
- Heriotza

Erakundearen Gobernu Batzarrak emango ditu prestazioak, eskuordetzeei kalterik egin gabe, hura eskuratzeko eskubidea daukan Bazkide Pasiboak edo Onuradunak idatziz egindako eskaeraren ondoren, dagokion dokumentazioa erantsita. Kudeaketa-taldeak prestazioen ordainketak administratuko eta gauzatuko ditu, Erakundearen Gobernu Organoek zehaztutako irizpideak betez.

Bazkide Pasiboei edo Onuradunei ordaindutako prestazioak Estatutu hauetan, Erakundearen Araudietan eta legezko xedapenetan jasotakoaren arabera arautuko dira.

25.1. ERRETIROAGATIKO PRESTAZIOA

25.1.1. Bazkideak bere eskubide ekonomikoak jasotzeko eskubidea izango du, Gizarte Segurantzak erabateko erretiro pentsioa onartu dion unetik aurrera edo, hala badagokio, une bakoitzeko erretirorako legezko adinetik aurrera, betiere une horretan Gizarte Segurantzaren altan jarraitzen ez badu.

25.1.2. Adimen urritu edo gaixotasun mentala duen bazkidearen Aurretiazko Erretiroa

Jarduneko adimen urritu edo gaixotasun mentala duen bazkide Oso edo Arruntak, ezgaitasun mailaren larriagotzeagatik (dagokion Erakundeak onartua) eta Bazkide Babesleak arrazoitutako proposamenaz, eskubide ekonomikoak jaso ahal izango ditu.

Aurretiazko erretiroagatik prestazioetan Kapital Gehigarria jasotzeko, Bazkide Oso edo Arrunt zein Babesleak, adimen urritu edo gaixotasun mentala duen langile Bazkide Oso edo Arruntaren alde ekarpenak eginak izan beharko ditu, gutxienez, prestazioa eskatu aurreko azken hamar urte jarraietan.

25.2. EZINTASUN IRAUNKOR OSO, ABSOLUTU ETA ELBARRITASUN HANDIAGATIKO PRESTAZIOA

Gizarte Segurantzak ezintasun-pentsio irmoa onartzen dionetik aurrera, Jardunean edo Etenik dagoen Bazkide Oso edo Arruntak, bere eskubide ekonomikoak jasotzeko eskubidea izango du.

Ezintasun iraunkor osoa edo absolutua duen pertsona berriz ere lan-jardueran hasten bada, eta ondorioz, erakunde honetan, eta ondoren gertaeraren bat izaten badu dela heriotza, dela beste ezintasun iraunkor osoa edo absolutua edota elbarritasun handia, Gizarte Segurantzaren organo eskudunak emandakoa, dela erretirora iristea, heriotzaren, ezintasunaren edo erretiroaren ondoriozko prestazio berria kapital edo errenta bat izango da (estatutu honen 27. artikuluan ezarritako irizpideen arabera). Kapital edo errenta hori kalkulatzeko, kontuan hartuko dira prestazio berria kobratzeko edo, hala badagokio, GEROAk mobilizatzeko eskubidea aitortzen duen unean dauden eskubide ekonomikoak.

Jarduneko bazkide Oso edo Arrunt bat GEROAra atxikitako edozein jarduera-sektore edo enpresetan gertatutako lan-istripu baten ondorioz, edozein lanbiderako ezintasun iraunkor absolutu edo elbarritasun handiko egoeran geratzen bada, kontzeptu honegatiko gutxieneko prestazioa 6.010 eurokoa izango da, eskubide ekonomiko gisa; betiere, aurrez arriskuagatik prestaziorik jaso ez badu.

25.3. BAZKIDE OSO EDO ARRUNTAREN HERIOTZAGATIKO PRESTAZIOA

Jardunean edo Etenik zegoen bazkide Oso edo Arruntaren heriotza unetik aurrera, honen onuradunak edo onuradunek eskubide ekonomikoak jasotzeko eskubidea izango dute.

Baldin eta, heriotza-prestazio batean, bazkidearen onuraduna alarguna edo izatezko bikote erregistratua bada eta prestazioa ordaintzeko modua errenta gisa bada, alargunak edo izatezko bikote erregistratuak heriotzaren ondoriozko prestazioa kobratzen hasteko aukera izango du, edo, bestela, prestazio horren unean eskubide ekonomiko guztiak GEROAn duen posizio-kontu propioan sartzeko aukera izango du (Erakundeak bazkide ez balitz, halakotzat alta emango litzaioke). Hala, beste kontingentzia bat izanez gero soilik eskuratuko lirakeke eskubide ekonomiko horiek.

Behin bi aukeretako bat hasita, biak dira atzeraezinak.

Jarduneko Bazkide Oso edo Arruntaren heriotza GEROAra atxikitako edozein jarduerasektore edo enpresetan gertatutako lan-istripu baten ondoriokoa bada, Bazkide Oso edo Arruntak izendatutako onuradunak edo onuradunek gutxienez 6.010 euro jasoko dituzte, eskubide ekonomiko gisa; betiere, langileak aurrez arriskuagatik prestaziorik jaso ez badu.

26. ARTIKULUA. PRESTAZIOEN ZENBATEKOA

Bazkide Arruntak eta Bazkide Babesleak, Bazkide Oso edo Arruntari egotzitako aldizkako ekarpenek eratutako banako ondarea, eskubide ekonomikotzat jotzen da. Honek baliabideen kudeaketan sortutako etekinak barneratzen ditu, behin gastuak ordaindu eta "Kapital Gehigarriaren" kasuan, dagozkion hornidurak egin ondoren, prestazioaren kobrantza edo intsuldaketa eskubidea ezagutarazten den unean baloratuak izanik.

Kapital Gehigarria:

Aktiboan dagoen bazkide bakoitzaren Eskubide Ekonomikoen zenbatekoa indartzeko edo areagotzeko helburuarekin, eta minusbaliatuen erretiratze eta gainontzeko bazkideen ezgaitasun eta heriotza kasuetan, kontingentzia hauengatik prestazioan "Kapital Gehigarria" barneratzen da. Hau kalkulatzeko, azken sei hilabeteetan egindako ekarpenen batezbestekoa, prestazioaren gertaera datatik une bakoitzeko erretirorako legeko adina bete arte geratzen diren hilabeteengatik biderkatzen da; beti ere, prestazio eskaria Erakundearen Araudiek ezarritako epean egiten bada. Ezintasuna edo heriotza sei hilabete baino gutxiagoko aldizko ekarpenen epean gertatzen bada, kalkulurako oinarritzat kontutan hartuko da berez kotizatutako ekarpenen batezbestekoa.

Dena dela, prestazioen zenbatekoa, prestazioaren kobrantza edo intsuldaketa eskubidea ezagutarazten den unean dauden Eskubide Ekonomiko baloratuen %100arekin kalkulatu da. Eskubide hauek kapital moduan kobratu ahal izango dira, behin-behineko errentan edo horrela badagokio, Biziarteko Errenta geroratuaren estaldurarako aktuarialki gauzatutako errenta moduan.

27. ARTIKULUA. PRESTAZIOEN ORDAINKETA

Prestazioak, behin ordaindu direnean atzeraezinak dira, Entitateari egotzitako akats posibleen kasuak salbuetsirik. Horregatik, ezingo dira atzera egin ez arrazoi fiskal ezta beste eragatikoenatik ere.

Prestazio edo intsuldaketa batean ezarriko den balio likidatzailea, eragiketa dataren (prestazioaren kobrantza edo intsuldaketa eskubidea ezagutarazten den data) aurreko egunekoa izango da.

Prestazioen ordainketan erabiliko den araudia, prestazioaren kobrantza edo intsuldaketa eskubidea ezagutarazten den unean indarrean dagoena izango da, kontingentzia mota eta gauzatze data edozein dela ere.

27.1. PRESTAZIOAK ORDAINTZEKO MODUA

Prestazioak ordaintzeko modua, prestazioaren kobrantza eskubidea ezagutarazten den unean eskubide ekonomikoen zenbatekoren arabera izango da.

Prestazioa errenta moduan ordainduko da; beti ere, prestazioaren kobrantza edo intsuldaketa eskubidea ezagutarazten den unean "Errenta Sortzen duen Zenbatekoa" lortzen bada, ondoren zehazten diren kasu bakoitzean:

$$\boxed{\text{ESZ}_{1. \text{urtea}} = \text{KAKO}_{0. \text{urteko gehienekoa}} * \%_{0. \text{urteko gehienekoa}}} \quad \text{bertan,}$$

ESZ _{1. urtea}	=	Errenta sortzen duen zenbatekoa 1. Urterako
KAKO _{0. urteko gehienekoa}	=	0. urteko Gehieneko kontingentzi arrunten kotizazio oinarria.
% _{0. urteko gehienekoa}	=	0. urtean GEROAri egindako gehieneko ekarpen ehunekoa.

Zenbatekoa gorantz biribilduko da, zenbaki osora.

1. Eskubide ekonomikoak ez badira nahikoak hileko gutxieneko ESZren zenbatekoarekin errenta 5 urtez ordaintzeko, prestazioa KAPITAL moduan ordainduko da.
2. Eskubide ekonomikoak nahikoak baldin badira gutxienez ESZri (errenta sortzeko zenbatekoari) dagokion hileko errenta ordaintzeko gutxienez 5 urte edo gehiagoz eta 20 urte baino gutxiagoz, prestazioa kapitalean izango da, salbu eta bazkideak eskaera egiten badu 5 eta 20 urte bitarteko aldi baterako finantza-errentan kobratzeko.
3. Eskubide ekonomikoak nahikoak baldin badira gutxienez ESZren hileko errenta ordaintzeko gutxienez 20 urtez edo **91 urte eta 2 hilabetera** iritsi arte geratzen diren urteez, prestazioa aldi baterako finantza-errenta gisa kobratuko da epe horretan bertan.

Prestazio bakoitza kasuetatik zeinetan dagoen zehazteko, errentak interes-tasarik gabe kalkulatu dira. Behin dagokion kasuan kokatuta egonik, hasierako hileko errenta, une bakoitzean indarrean dauden parametro teknikoekin kalkulatu da.

Salbuespenak:

1. Bazkide langilearen edo ezkontidearen bestelako onuradunak

25 urtetik beherako seme-alabak edo minusbaliatuak (\geq % 65): Errenta finantzario moduan kobratuko dute hilero zenbateko berean 25 urte bete arte.

25 urte bete arte geratzen diren urte kopurua 5 baino gutxiagoa izanez gero, kapital moduan kobratzeko aukera dute.

Seme-alaba minusbaliatuen adina adingabekoenarekin parekatuko da. 25 urtetik beherako seme-alabarik ez balego, seme/alaba minusbaliatuak prestazioa osorik kobratuko lukete kapital moduan.

Errentaren gutxieneko zenbatekoa ESZ izango da. Muga honetara iritsiko ez balitz, kapital moduan kobratuko lukete 25 urte bete arte geratzen diren urteen proportzioan (seme-alaba minusbaliatuaren adina adingabekoaren parekoa izango da).

Salbuespen gisa, minusbaliotasuna duten 25 urtetik gorako seme-alabek, eta adin parekagarriko 25 urtetik beherako anai-arrebarik ez dutenek, errenta moduan kobratzeko aukera izango dute, erretiroa hartu duen bazkide baten baldintza beretan.

Gainontzeko onuradunak: kapitalean.

2. Ezintasun Iraunkor Absolutuaren edo Baliaezintasun Handiaren ondorioz emandako gertakarietatik eratorritako prestazioak

Ezintasun Iraunkor Absolutuaren edo Baliaezintasun Handiaren ondorioz emandako gertakizunetatik eratorritako prestazioen kasuetan, Estatutu honen 27.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, dagokion ordaintzeko modua Errenta bada, bazkideak aukeratu ahal izango du errenta ESZaren bikoitzaren arabera kalkulatzeko (betiere ateratzen den iraupena gutxienez 5 urtekoa bada), eta horrela haren epea murriztuko da, horrek 27.1 artikuluko parametroen arabera kalkulaturako ordaintzeko modua inola ere aldatu gabe.

Kapital zein errenta moduko prestazioen ordainketa Bazkide Pasiboaren edo Onuradunaren titulartasuneko kontu korrontean egingo da.

27.2. ERRENTEN ITZULTZEA

1. Errenta finantzarioak, bazkidearen edo ezkontidearen edo izatezko bikote erregistratuaren titulartasunarekin:

Ezarritako lehentasun-ordena jarraituz, titularraren heriotzaren ondorioz geratzen diren errentak modu honetan burutuko dira:

ONURADURA	KOBRAZKEKO MODUA
Azken ezkontidea edo izatezko bikote erregistratua.	Errenta finantzario moduan kobratuko ditu gelditzen diren hilerokoak, Biziarteko Errenta Geroraturik gabe.
25 urtetik beherako seme-alabak edo minusbaliatuak (\geq % 65)	Geratzen den zenbatekoa kapital moduan kobratuko dute, 25 urte bete arte geratzen diren urteen proportzioan; minusbaliatuen adina adingabeenarekin parekatuko delarik. Salbuespen gisa, minusbaliotasuna duten 25 urtetik gorako seme-alabek, eta adin parekagarriko 25 urtetik beherako anai-arrebarik ez dutenek, errenta moduan kobratzeko aukera izango dute, erretiroa hartu duen bazkide baten baldintza beretan.
Gainontzeko oinordekoak	Kapitala

2. Biziarteko Errenta Geroratuaren aktuario-errentak

Itzulezinak dira.

3. Seme-alaba adingabeen edo minusbaliatuen errenta finantzarioak (\geq % 65)

Kasu honetarako lehentasun-ordena salbuespen bat da orokorrarekiko, baldin eta errenta finantzarioa kobratzen duten anai-arrebak baldin badaude, haietako baten heriotzagatik geratzen den kapitala gainontzekoen errenta handitzeko erabiliko baita.

Alderantziz, lehentasun-ordena arrunta izango da, eta ordainketa-modua, berriz, kapitala.

27.3. ONURADUNEN LEHENTASUN ORDENA

Heriotzagatiko prestazio baten edo jada emandako prestazio bat itzultzen zaien onuradunek lehentasun-ordena hau jarraituko dute, betiere prestazioa edo inzidentzia burutzen den unean bizirik badaude:

1. Alarguna edo izatezko bikote erregistratua.
2. 25 urtetik beherako seme-alabak edo minusbaliatuak ($\% \geq 65$)
3. 25 urtetik gorako seme-alabak.
4. Bazkide Oso edo Arruntak izendatutako onuradunak.
5. Hil den Bazkide Oso edo Arruntaren onuradun legalak.

28. ARTIKULUA. ALDI BATERAKO ERRENTAK KALKULATZEKO FINANTZA PARAMETROAK

Errenta finantzarioen hasierako kalkulua, Entitateko Prestazioen Araudietan ezarritako finantza parametroak erabiliz egingo da.

29. ARTIKULUA. BIZIARTEKO ERRENTA GERORATUAK KALKULATZEKO PARAMETRO AKTUARIALAK

Hornidura matematikoaren kalkulua banan-banan egingo da bazkide bakoitzarentzat, edo Erakundearen prestazioen araudietan ezarritako hilkortasun-taulak eta interes-tasa teknikoa erabilita, dagokion hornidura matematikoa gehi segurtasun-marjina bat zuzkituta, uneoro indarreko araudia errespetatuz.

30. ARTIKULUA. JARDUERA ARAUAK PRESTAZIOEN ORDAINKETETAN ARRISKU ESTALDURAK KASU BEREZIAN

GEROAK hurrengo paragrafoetan ezartzen diren termino eta baldintzetan, jarduneko heriotza, ezintasun iraunkor oso, ezintasun iraunkor absolutu eta elbarritasun handiko kontingentziengatiko prestazioen estaldura bermatuko du:

- a) Entitateko kide izatera behartuta zeuden enpresetako langilei dagokienez, Estatutu hauetako 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, nahiz eta data horretarako ez duten euren atxikimendua gauzatu, ez eta dagozkien ekarpenak ordaintzen hasi ere, Estatutu hauetako 10. artikulua behartzen duenez.
- b) Kontingentziaren gertakari datan atxikitutako enpresetako langileen kasuan, enpresak eraginpeko langilearen GEROAra atxikimendua gauzatu ez badu, ezta ekarpenak ordaintzen hasi ere.

Dena den, eraginpeko langilea, prestaziorako eskubidea eragiten duen gertakari eragilea izan aurretik, Gizarte Segurantzaren altan zegoela frogatu beharko du enpresak.

- c) Kontingentziaren gertakari eragilearen datan, Entitatera atxikitako enpresen langileei dagozkien ekarpenen ordainketak enpresa enplegatzaileak eguneratuak ez dituenean, zeinak arrisku horien estaldura bermatzen duten.

GEROAK langile horrek haietarako eskubidea izan zezakeen prestazioak ordaintzea arrisku horien estaldura dela eta eraginpeko langileari dagozkion ekarpen guztiak enpresa enplegatzaileak alde aurretik betetzearen menpe egongo da, gehi Estatutu hauen 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera sorturiko berandutzako interesak, eta horren guztiaren berri eman beharko dio erkidegoko agintaritza eskudunari.

Era berean, GEROAK ekarpenen ordainketan atzerapenak dituzten plantilako gainerako langileei dagozkien zorpetutako ekarpen guztien kontribuzioa eskatu beharko dio enpresa enplegatzaileari, gehi Estatutu hauen 17. artikuluan ezarritakoaren arabera sortu diren berandutzako interesak.

V. TITULUA: ENTITATEAREN GOBERNU-ORGANOAK.

31. ARTIKULUA. GOBERNU-ORGANOAK

Entitatearen Gobernua, oro har, honako organo hauek burutuko dute:

- * Batzar Orokorra.
- * Gobernu Batzordea.
- * Plan bakoitzaren Jarraipen Batzordeak

Jarraipen Batzordeetako, Gobernu Batzarreko eta Batzar Nagusiko kargu guztiak doakoak eta borondatezkoak dira.

32. ARTIKULUA. GOBERNU-ORGANOETAKO KIDE IZATEKO BALDINTZAK

Gobernu Organo bateko kide izateko honako baldintza hauek bete behar dira:

- a) Eskubide zibil eta lanbidekoen jabe izatea osorik.
- b) Hautatua edo izendatua izatea.
- c) Bazkide Babesleek zein Bazkide Oso edo Arruntek ekarpenen ordainketen jakinaren gainean egon behar dute.

33. ARTIKULUA. BATZAR OROKORRA: IZAERA ETA OSAKETA

Batzar Orokorra da Erakundearen Gobernuko goi-organoa.

Batzar Orokorra Bazkide Eratzaile, Bazkide Babesle eta enpresa-talde bati atxikitako jarduneko Bazkide Oso edo Arrunten ordezkariekin osatuko da, honela banaturik:

53 kide Bazkide Babesleen ordezkari. Batzar Orokorreko Bazkide Babesleen ordezkari guztiak zuzenean ADEGIk izendatuko ditu, halaber Bazkide Eratzaile dena.

53 kide Bazkide Oso edo Arrunten ordezkari, horietatik 9 sindikatuen aldeko Bazkide Eratzaileen ordezkari, Gobernu Batzordean izango direnak. Bazkide Oso edo Arrunten ordezkari guztiak ELA, LAB, CCOO eta UGT Zentral Sindikalek izendatuko dituzte, hauteskunde sindikaletan lortutako proportzionaltasunari jarraiki, Entitatea kokatua dagoeneko lurralde-eremuaren konfederazio-mailan; ordezkari-tza lau urtetik lau urtera berrikusiko da. Bestalde, ordezkari-tza sindikala lortzeko beharrezkoa da zentral sindikalak "ordezkari gehiago" izatea edo langile-ordezkarien edota Enpresa-batzordeko kideen %10 lortu izana, aipatu eremuan.

Bazkide Eratzaileen eta Babesleen ordezkariak Batzar Orokorrean ez dute Entitateko Bazkide Oso edo Arruntak izan behar.

34. ARTIKULUA. BATZAR OROKORREKO ORDEZKARIEN IRAUPENA, GERTATUTAKO HUTSAK ETA ORDEZPENA

Batzar Orokorreko kideen agintaldia gutxienez lau urtekoa izango da, eta berriro aukera daitezke.

Ordezkarri hauek baja eman behar dute honako kasu hauetan:

- a) Heriotzagatik.
- b) Gobernu Batzordearen aurrean behar bezala justifikatutako ezintasun fisikoagatik edota beste edozein motatakoagatik.
- c) Ekarpenak egunean ordainduak ez edukitzeagatik.
- d) Izendatu duen erakundearen erabakiagatik.

Zehaztutako epealdian hutsak gertatuko balira ADEGI edo ELA, LAB, CCOO eta UGT-ren proposamenez izendatuko dira dagozkion ordezkari berriak.

Aurrekoa kontuan hartu gabe, ordezkariak ordezkatzeko duten Elkarte edo Erakundeengandik aldatuak izan daitezke.

Aurreko bi ataletan zehaztutako kasuetan, izendapen berrien eragina aurretik ezarritako 4 urteko agintaldia amaitu bitartekoa izango da, ospatuko den lehen Batzar Orokorrean adieraziz.

35. ARTIKULUA. BATZAR OROKORRAREN EGINKIZUNAK

Batzar Orokorraren eginkizunak honako hauek izango dira:

1. Hasieran onartutako estatutuen baiespena eta haien ondorengo aldaketen onarpena.
2. Gobernu Batzordea osatuko duten kide titularrak izendatu, halaber, bertan gerta daitezken hutsak, Estatutu hauen 39. artikuluan ezarritakoaren arabera izendatuak izan ondoren.
3. Gobernu Batzordean parte hartzeko hautatuen artean, Entitateko Lehendakari, Lehendakariorde, Idazkari eta Diruzaina izendatu.

4. Entitatearen ikuskatzaileen izendapena.
5. Gobernu Batzordeak aurkeztutako Urteko Kontuak, Kudeaketa Txostena eta gainerako kontularitza-dokumentuak eta teknikoak aztertu eta onartzea.
6. Gobernu Batzordeak bere eginkizunen garapenean duen jarduketa ezagutu eta onartzea.
7. Planteatutako arazoak ezagutu eta konpontzea.
8. Entitatearen onerako diren eta Gobernu Batzordeak aurkeztutako iradokizun guztiak ikertu eta aztertzea.
9. Beste entitateen bategite, federazio edo zurgapenari buruz erabakitzea.
10. Entitatearen desegitea Estatutu hauen arabera erabakitzea.
11. Mutua Fondora ekarpen berriak erabaki, era berean bere itzulera.
12. Indarreko xedapen edo Estatutuak ezartzen dituzten guztiak.

36. ARTIKULUA. BATZAR OROKORREKO BILKUREN MOTAK, DEIALDIA ETA QUORUMA

Batzar Nagusiak ohiko eta ohiz kanpoko bilkurak egin ahal izango ditu, bai aurrez aurre, bai baliabide telematikoen bitartez.

Batzar Nagusia, ohiko zein ohiz kanpoko bilkuran, Gobernu Batzarreko lehendakariak eskatuta deituko da, bazkide sustatzaile eratzailen ordezkari, bazkide babesleen ordezkari eta bazkide oso edo arrunten ordezkari bideratutako komunikazioaren bidez, gutxienez bilkura egiteko data baino 10 egun eta gehienez 30 egun lehenago. Bertan bilkuraren eguna, ordua eta lekua edo, hala badagokio, konektatzeko esteka adieraziko dira eta dagokion gai-zerrenda erantsiko da.

Bakoitzari jakinarazterik ez balego, beharrezko publizitatea emango zaio, deialdiaren berri eduki ahal izateko.

Entitateak ospatuko dituen Batzar Orokorretan gai egokiaz arituko dira.

Batzar hauetan ezin izango da Gai Zerrendan azaldu gabeko gairik aztertu.

Ohiko Batzar Orokorra, urtearen lehenengo lau hilabetetan izango da urteko bileran. Beste edozein Batzar ez-ohikoa izango da.

Ez ohiko Batzar Orokorrerako deia, Gobernu Batzorderen beraren ekimenez edota Bazkide Eratzaileek hala eskatutakoan egin ahal izango da, edota, gutxienez, Bazkide Babesle edo Bazkide Oso edo Arrunten % 20k eskatutakoan.

Ohiko eta Ez Ohiko Batzar Orokorra balioz eratua geratuko da lehen deialdian, erdiak baino ordezkari bat gehiago bertaratutakoan. Kopuru hori lortu ezean, balio osoz eratua geratuko da, bertaratuen kopurua edozein delarik, ordu-erdi beranduago eta toki berean egingo den bigarren deialdian.

Bazkide Eratzaileen, Babesleen edo Bazkide Oso edo Arrunten ordezkariak beren botua aipatutako Organuko beste ordezkari baten esku utzi dezakete, Entitateko Lehendakartzari esku uztea idatziz jakinaraziz, Batzarra ospatu aurretik.

Batzarreko Lehendakaritza Gobernu Batzordeko Lehendakariak burutuko du edota (estatutuen arabera bere ordezkari jardungo duenak) hau ezean lehendakariordeak; Idazkari lanak ere Gobernu Batzordekoak egingo ditu edo Gobernu Batzordeak erabakitako kideak, edota, azken kasuan, Batzarrean adinez gazteena denak.

Batzar Orokorraren bileretara, Entitatearen talde kudeatzailearen ordezkariak joan ahal izango dira.

37. ARTIKULUA. BATZAR OROKORREKO AKORDIOAK

Gaiak indarreko araudian ezarritako gehiengo-erregimenaren arabera ebatziko dira.

Hartutako akordioek Entitateko bazkide guztiak behartzen dituzte.

Edozein Bazkidek Batzar Orokorraren akordioei aurka egiteko eskubidea izango du, akordio hauek legearen edo Estatutuen aurkakoak badira, edo bazkide bat edo hainbaten onerako, BGA Eren, bere bazkideen edo onuradunen interesak kalte egiten badituzte.

Batzar Orokorreko akta-liburu bat, indarreko antolamenduen arabera bideratuta, eramango da.

38. ARTIKULUA. GOBERNU BATZORDEA: IZAERA ETA OSAKETA

Gobernu Batzordeari dagokio Entitatearen zuzendaritza eta ordezkaritza egitea, eta Batzar Orokorrari ez dagozkion ahalmenak ere berak burutuko ditu.

Gobernu Batzordea 26 ordezkari osatuko dute, honela banaturik:

- a) Bazkide Babesleak, 13 ordezkari, guztiak ADEGIk izendatuak, horietatik 9 enpresa aldeko Bazkide Eratzaileei dagozkienak.
- b) Bazkide Oso edo Arruntak, 13 ordezkari, ELA, LAB, UGT eta CCOO Zentral Sindikalek izendatuak, horietatik 9 sindikatu aldeko Bazkide Eratzaileei dagozkienak.

Kide ordezkari hauen izendapenak Gobernu Batzordean, Batzar Orokorrerako eskatutako baldintza berberak bete behar ditu, gainera bere izendapenerako legalki ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

Ordezkariek ez dute zertan Entitateko bazkide izan behar.

39. ARTIKULUA. GOBERNU BATZORDEKO ORDEZKARIEN IRAUPENA, GERTATUTAKO HUTSAK ETA ORDEZPENA

Gobernu Batzordeko kideen agintaldia gutxienez lau urtekoa izango da, eta berriro aukera daitezke.

Ordezkaritza sindikalak Gobernu Batzordean Batzar Orokorrean ezarritako proportzionaltasun bera gorde behar du, kide ordezkariak berriro aukeratuak izatearen kaltetan gabe.

Gobernu Batzordeko kideen karguaren txanda Batzar Orokorrak har dezake eta era berean isiltasun profesionala gorde beharko dute, Batzarrak berak isilik gorde beharrezkotzat aitortutako gaietan. Gobernu Batzordeko kideak kargutik ken daitezke, Gobernu Batzordeak egindako espedientearen ondoren.

Lehendakariaren eta Diruzainaren karguak alde batetik eta Lehendakariordearena eta Idazkariarena bestetik, lau urtetik lau urtera eta txandaka, ADEGIko ordekariek eta Zentral Sindikaleko ordezkariak burutuko dituzte.

Zehaztutako epealdian hutsak gertatuko balira ADEGI edo ELA, LAB, CCOO eta UGT-k proposatuta beteko lirateke ordezkatzeko zuten dagozkion kideak.

Ordezkariek ordezkatzeko duen Elkarte edo Erakundeengandik aldatuak izan daitezke.

Aurreko bi ataletan zehaztutako kasuetan, izendapen berrien eragina aurretik ezarritako 4

urteko agintaldia amaitu bitartekoa izango da, ospatuko den lehen Batzar Orokorrean adieraziz.

40. ARTIKULUA. GOBERNU BATZORDEAREN EGINKIZUNAK

Konpetentziak eta eginkizunak honako hauek izango dira:

1. Entitatearen gobernu eta ordezkaritza burutzea.
2. Estatutu hauetako aginduak eta indarrean dagoen araudiak bete eta betearaztea.
3. Eskatutako lankidetzak tekniko eta administratiboak izendatu, berretsi edo uztea, dagozkion kontratuak gauzatu eta Entitateak ondo funtzionatzeko eta alor ekonomiko eta finantzazkoan eta aktuarialean finkatzeko beharrezkoak diren bestelako ekintzak burutz.
4. Emandako atxikipean, bereziki borondatezkoak, aztertu eta erabakitzea.
5. Urteko Txostena, Egoera Balantzea, Emaizten Kontua, datorren ekitaldiko aurrekontua eta egoki iritzitako gainerako kontularitza-dokumentuak eta teknikoak zein beste zenbait irizpen eta txosten idaztea eta Batzar Orokorraren menpe jartzea.
6. Batzar Orokorrari estatutu hauen erreforma, Entitatea beste Entitateekin bat egin, federatu eta elkartzeko eta desagitea proposatzea Bazkide Eratzaileek onartu ondoren.
7. Entitatearen baliabide guztien inbertsio-politikaren diseinua prestatu eta onartzea eta inbertsioak kontrolatzea.
8. BGA Erenak diren tituluen entitate-gordailuzaina izendatzea.
9. Entitatearen eta bazkideen onerako diren neurriak hartzeko egoki iritzitako iradokizunak eman eta proposatzea.
10. Estatutu hauek egotzitako beste eskuduntzak gauzatea.
11. Ondasunak eta eskubideak lortu, eduki, zergapetu eta besterenganatzea, baita jabari hutsekoak direnak ere. Benetako eskubide-mota guztiak eratu eta kitzatzea, baita higiezinaren hipoteka ere, eta edozein ekintza-mota burutzea, hori guztia lortu nahi dena gauzatzekotan. Aurrezki Kutxetan, Bankuetan eta Espainiako Bankuan kontu korrante, aurrezki-libreta eta eperako ezarpenak irekitzea, kontuen intsuldaketa eta saldoen erabilera onartzea, Gobernu Batzordeko bi kideren sinadurarekin.

12. Estatutu hauetan ezarritakoari jarraiki, zigorrak ezartzea eta beharrezko dituen datuak eta txostenak eskatzea.
13. Bere kargua arduraz burutzea, Bazkide Eratzaile, Bazkide Babesle eta Bazkide Oso edo Arrunten aurrean, uste txarrez, ahalmenen gehiegikeriaz edo zabarkeria larriaz sortutako kalteengatik erantzunez. Estatutu hauen aplikazioak planteatutako zalantzak konpontzea.
14. Eskubide ekonomikoen intsuldaketa eskaerak aztertu eta ebatzi.
15. Entitateko Zuzendari Nagusia izendatu eta utzi.
16. Arriskuak kudeatzeko eta barne-auditoriako funtzioei eta, funtzio aktuarialari eta kanpora ateratakoei buruzko politikak idatzita ezarriko dira.
17. Gobernu-batzordearen ardura izango da politika horiek ezartzea; urtero berrikusiko dira, eta egokitu egingo dira erakundearen sisteman edo arlo bakoitzean aldaketa garrantzitsuren bat gertatzen denean.
18. Ordainsari-politikaren printzipio orokorrak, erakundearen arrisku-profilean eragina duten jarduerak egiten dituzten langile-kategoriei dagokienez zehaztuko ditu, eta zuzen aplikatzen direla kontrolatuko du.
19. Batzar Orokorrarentzat espresuki gordeta ez dauden gainerako kompetentziak.

41. ARTIKULUA. GOBERNU BATZORDEAREN DEIALDIA

Gobernu Batzordeko deialdia Lehendakariak eskatuta egingo da, gutxienez, ospatu baino 10 egun eta dagokion Gai-zerrendaren berri ematearekin batera.

Gobernu Batzarra bere egoitza sozialean edo izendatzen den lekuan bilduko da, bai aurrez aurre, bai baliabide telematikoen bitartez, ohiko izaeraz gutxienez urtean hiru aldiz hiruhileko desberdinetan, edota bereziki lehendakariak deitzen duenean.

Gobernu Batzardea egoki eratua egongo da partaideen, bertaratutako edo ordezkari, erdia gehi bat aurkezten denean.

Lehendakariak Gobernu Batzorderako deia ohiz kanpo Batzarraren kide erdiaren eskariarekin egingo du, baina modu honetan deitutakoak ezingo dira urtean hiru baino gehiago izan. Deialdiari bilkurako gai-zerrenda gehituko zaio.

Gobernu Batzordeko kideen herenak ohiko bileren Gai Zerrendan sar ditzake puntuak, Lehendakariari idatziz jakinarazi ondoren, gutxienez astebeteko aurrerapenez.

42. ARTIKULUA. GOBERNU BATZORDEKO AKORDIOAK

Gaiak indarreko araudian ezarritako gehiengo-erregimenaren arabera ebatziko dira.

Bazkide Eratzaileen, Babesleen edo Bazkide Oso edo Arrunten ordezkariak beren botoa aipatutako Organuko beste ordezkari baten esku utzi dezakete, Batzorde bakoitzerako eskuordetzea era berezian eta Entitateara idatzita jakinaraziz, berau ospatu aurretik.

Dagokion Akta Liburua eramango da.

43. ARTIKULUA. LEHENDAKARIAREN EGINKIZUNAK ETA AHALMENAK

Gobernu Batzordeko Lehendakaria Entitatearen goi mailako ordezkaria izango da. Honako eginkizun eta ahalmen hauek ditu:

1. Batzordearen izenean Entitatea ordezkatzeko, egindako egintza eta kontratua guztietan.
2. Batzar Orokorraren bileretako mahaiburua izan eta Gobernu Batzorderako deia egin eta bileretako mahaiburua izatea.
3. Gai Zerrenda zehaztea, Gobernu Batzordeko bilkuretan.
4. Zerbitzu guztietan fiskalizazioa burutzea eta legezko formalitate guztiak bete daitezen zaintzea.
5. Gobernu Organoek hartutako erabakiak betearaztea.
6. Entitatearen izenean ahalmenak eman eta dokumentu publikoak edo pribatuak izenpetzea, Batzar Orokorraren eta Gobernu Batzordearen erabakiak betez.
7. Entitateak emandako dokumentu, komunikazio eta idazki ofizialak baimentzea bere sinaduraren bidez.
8. Premiazko kasu jakinak konpontzea, Gobernu Batzordea lanegunean biltzea ezinezkoa denean, eta egingo den lehen bileran horren berri eman berari.
9. Entitatearen administrazio-zerbitzuen buruzagitza bere gain hartzea eta horren eraginkortasunaz erantzutea.
10. Zigorak ezartzeko prozedura aurrera eramatea, Estatutu hauetan ezarritakoari jarraiki.
11. Berariaz Gobernu Organoei gorde gabeko gainerako zuzendaritza eta kudeaketako eginkizun guztiak.

44. ARTIKULUA. LEHENDAKARIORDEAREN EGINKIZUNAK ETA AHALMENAK

Lehendakariordearen eginkizun eta ahalmenen barruan daude Lehendakaria bertaratu ez, gaixo egon edota hildakoan ordezkatzea, edota Gobernu Batzordeak agindutako gainerako jarduerak burutzea.

45. ARTIKULUA. IDAZKARIAREN EGINKIZUNAK ETA AHALMENAK

Idazkariari honako hau dagokio:

1. Lehendakariak ontzat emandako liburu eta dokumentuei buruzko egiaztapenak igortzea.
2. Lehendakariarentzat gorde gabeko korrespondentzia sinatzea.
3. Batzar Orokorraren eta Gobernu Batzordearen deialdiak egitea, hala nola igorri beharreko edozein zirkular motatakoena ere.
4. Orokorrean, Gobernu Batzordeak agindutako gainerako eginkizunak. Idazkaririk egongo ez balitz, Gobernu Organorik gazteenak ordezkatzeko luke.

46. ARTIKULUA. DIRUZAINAREN EGINKIZUNAK ETA AHALMENAK

Diruzainaren eginkizunak honako hauek izango dira:

1. Gobernu Batzordeak zuzendaritza egokia, lankidetzara tekniko eta administratiboak kontrata ditzakeenez, bere eginkizuna kasu honetan informazioa gainbegiratzea eta hartzea izango da.
2. Bere karguarekin zerikusia duten guztiak.

47. ARTIKULUA. GOBERNU BATZORDEKO KIDEEN EGINKIZUNAK ETA AHALMENAK

Gobernu Batzordeko batzordekideek bilkuretara joateko eskubidea eta betebeharra dute, eta Batzarrak berak agindutako gainerako gestioak burutuko dituzte.

48. ARTIKULUA. PLANEN JARRAIPEN BATZORDEAK. OSAERA

Erakundearen barneratutako aurreikuspen-plan bakoitzak Jarraipen Batzorde bat izango du, Gobernu Batzarreko 6 kideek osatuko dutena, honela:

- Bazkide babesleen aldetik, ADEGIK izendatutako 2 ordezkari, Jarraipen Batzordearen ordezkagarritasunaren % 50 izango dutenak.
- Bazkide oso edo arrunten aldetik, ELA, LAB, CCOO eta UGT zentral sindikalek izendatutako 4 ordezkari, Jarraipen Batzordearen ordezkagarritasunaren % 50a izango dutenak. Jarraipen Batzordeko ordezkagarritasun sindikalak Batzar Nagusirako ezarritako proportzionaltasun bera mantendu behar du.

Dena den, 6 kideen artean Erakundeko lehendakaria eta idazkaria egongo dira, eta ordezkatzeko dituzten erakundearen ordezkari gisa zenbatuko dira.

Erakunde bakoitzak ordezkari bat izendatu ahal izango du, titularra bertaratu ezin bada ordezkatzeko duen erakundearen izenean jardun dezan.

Jarraipen Batzordeko kide diren ordezkari horien izendapenak Batzar Nagusirako eskatutako baldintza berak bete behar ditu, eta, gainera, kide horiek izendatzeko lege ezarritako baldintzak ere bete beharko dira.

Jarraipen Batzordeko kideek lau urtez beteko dute beren agintaldia, eta berriz hautatu ahal izango dituzte.

Ordezkariek Erakundeko bazkide ez izateko aukera izango dute.

Jarraipen Batzordeko kideei beren kargua kendu ahal izango die Batzar Nagusiak, eta, era berean, sekretu profesionala gordetzera behartuta egongo dira Jarraipen Batzordeak berak isilpekotzat jotzen dituen gaietan. Kideak kargurik gabe utzi ahal izango dira Jarraipen Batzordeak espedienteak formulatu ondoren.

Zehaztutako aldiaren hutsik gera daitezkeen karguak betetzeko, ADEGIK edo ELAK, LABek, CCOOek eta UGTk proposamena egingo diote kargutik kendu den kideak ordezkatzeko zuten erakundeari.

Ordezkariek aldatu egin daitezke haien ordezkatzeko duten elkarteak edo erakundeak erabakitzen badu.

Aurreko bi ataletan zehaztutako kasuetan, izendapen berriek arestian ezarritako 4 urteko agintaldia osatzeko geratzen den aldiaren sortuko dituzte ondorioak, eta egingo den lehen Batzar Nagusian emango da horien berri.

49. ARTIKULUA. JARRAIPEN BATZORDEAREN EGINKIZUNAK

Honako eskumen eta ahalmen hauek izango ditu:

1. Lehenasunezko enpleguko gizarte-aurreikuspeneko planaren kudeaketaren jarraipena egitea.
2. Hala badagokio, lehenasunezko enpleguko planaren araudiak hasieran onartzea eta aldatzea.
3. Bazkideen interesean jardutea, zuhurki, ezagueraz eta arduraz.
4. Planaren kaudimena eta oreka zaintzea, eta onartuta eta prestatzen ari diren prestazioei behar bezala erantzuteaz arduratzea.
5. Araudiak betetzea eta betearaztea.
6. Dagokion plana lekualdatu eta bat egiteari, zatitzeari eta azkentzeari buruz erabakitzea.
7. Hala badagokio, plana txertatuta dagoen borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundearen gobernu-organoetan parte hartzea.
8. Inbertsio-printzipioen idatzizko deklarazioaren berrikusketa proposatzea eta, aldian behin, planteatzea.
9. Araudien arabera planteatzen dizkioten erreklamazio guztiei erantzutea eta haien tramitatzea.
10. Plana borondatezko gizarte-aurreikuspeneko zein erakundetan barneratuko den erabakitzea.
11. Legez ezartzen diren gainerakoak.

50. ARTIKULUA. JARRAIPEN BATZORDEAREN DEIALDIA

Jarraipen Batzordea Erakundeko lehendakariak eskatuta deituko da, idatziz, gutxienez bilkura egiteko data baino 10 egun lehenago, dagokion gai-zerrendarekin.

Jarraipen Batzordea bere egoitza sozialean edo izendatzen den lekuan bilduko da, bai aurrez aurre, bai baliabide telematikoen bitartez, ohiko izaeraz gutxienez urtean bi aldiz hiruhileko desberdinetan, edota bereziki lehendakariak deitzen duenean.

Jarraipen Batzordea balioz erata geratuko da bilkuran ADEGItik ordezkari bat gutxienez eta sindikatuen aldetik 3 gutxienez agertzen direnean edo ordezkatuak daudenean.

Lehendakariak ohiz kanpoko Jarraipen Batzordea deituko du Jarraipen Batzordeko kideen erdiek eskatzen dutenean. Urtean gehienez ere modu horretan deitutako hiru bilkura egin ahal izango dira. Deialdiarekin batera bilkuraren gai-zerrenda igorriko da.

Jarraipen Batzordearen herenak puntuak sartu ahal izango ditu ohiko bilkuren gai-zerrendan, baldin eta idatziz jakinarazten badio lehendakariari gutxienez bilkura egin baino astebete lehenago.

51. ARTIKULUA. JARRAIPEN BATZORDEAREN ERABAKIAK

Indarreko araudian ezarritako gehiengoaren arabide beraren arabera ebatziko dira gaiak.

Bozketen emaitza ezartzeko ez da kontuan hartuko boto kopurua, ordezkari bakoitzaren ordezkagarritasuna baizik. Ordezkagarritasun hori Batzar Nagusirako ezarritako berbera izango da.

Bazkide sustatzaile eratzailen, bazkide babesleen edo bazkide oso edo arrunten ordezkariak batzorde horretako beste edozein ordezkariaren eskuetan delegatu ahal izango dute botoa. Horretarako, delegazioa idatziz jakinarazi behar diote Erakundeari, bilkura bakoitzerako bereziki, bilkura egin baino lehen.

Dagokion akta-liburua eramango da.

52. ARTIKULUA. KUDEAKETA TALDEA ETA BERE EGINKIZUNAK

Gobernu Batzordearen kontrol iraunkor eta zuzenaren menpe, honek Zuzendari Nagusi baten zerbitzuak kontrata ditzake. Zuzendari Nagusi honen botere eta ahalmenak Batzarrak eskuordetutakoak izango dira eta indarrean dagoen lege-araudian aurreikusitako kasu horietan ere burutu ditzake.

Erakundearen zuzendaritza benetan daramatenek edo funtsezko funtzioak egiten dituztenek, kualifikazio profesional, ezagutza eta esperientzia egokiak izango dituzte, erakundearen kudeaketa sana eta zuhurra dela eta funtsezko funtzioak egoki egiten direla segurtatzeko.

Era berean, erakundearen zuzendaritza benetan daramatenek edo funtsezko funtzioak egiten dituztenek zintzoak izan beharko dute, eta horrekin esan nahi da jokaera pertsonal eta profesional zuzena izan behar dutela.

Zuzendari Nagusiaren funtzioak, lan talde profesional batekin, honako hauek dira:

1. BGA Eren kontularitza eta administraritzako eragiketa guztiak antolatu eta eramatea, araubidezko liburu eta erregistroen bidez.
2. Gobernu Batzordeei aldizka aurkeztu beharreko informazio ekonomikoa eta finantzazkoa prestatzea.
3. Egindako ekarpenak eta ordaindutako prestazioak ezagutu eta kontrolatzea.
4. Egungo konpromiso legal eta fiskalak betetzeko beharrezkoa den informazioa prestatzea.
5. BGA Eko Gobernu Organoek agindutako finantza eragiketak burutzea.
6. Gobernu Batzordeak lankide tekniko edo administratibo gisa kontratatutako adituen elkarteek burututako lanak ezagutu eta aztertzea.
7. Ikuskariei laguntzea beren eginkizunak aurrera eramaterakoan, beharrezkoa izango balitz.
8. Kitapen Batzordeari laguntzea bere eginkizunak aurrera eramaterakoan, beharrezkoa izango balitz.
9. Entitatearen zerbitzu guztietako arduraduna izatea.
10. Gobernu Batzordeak agindutako gainerakoak.

VI. TITULUA: DIZIPLINAZKO ERREGIMENA

53. ARTIKULUA. HUTSEGITEAK

Bazkide Babesle, Bazkide Oso edo Arrunt, Bazkide Pasibo eta Onuradunek Entitatea kaltetuz, Titulu honetan ezarritako hutsegiteren baten egile balira, beren ardura izango litzateke.

Hutsegiteak izango dira Entitateari kaltea eragindako akzio edo omisioak. Honako egintza hauek zigor daitezke:

- a) Estatutu-aginduak edota funtzionamendurako arauak ez betetzea.
- b) Entitatearen interesei iruzur egitea.
- c) Entitatearen aurka Bazkide Babesle, Bazkide Oso edo Arrunt, Bazkide Pasibo eta Onuradunek egindako aitorpenak faltsutzea.
- d) Bazkideek edo Onuradunek Entitateari beraien egoera aldatu egin dela ez jakinaraztea.
- e) Entitatearen jarduerari oztopo egitea.
- f) Arrazoi justifikaturik gabe, Gobernu Organoen bileretara ez joatea.

54. ARTIKULUA. ZIGORRAK

Entitateak honako zigor hauek ezar ditzake:

- a) Zigortuari modu pribatuan ohartaraztea, ahoz edo idatziz.
- b) Zigortuari publikoki ohartaraztea, zigorra eredugarria izateko moduko publikitatearekin.
- c) Aldi baterako inhabilitazioa edo inhabilitazio iraunkorra, Erakundearen Gobernu Organoetan parte hartzeko.

55. ARTIKULUA. ZIGORRAK EZARTZEKO PROZEDURA

Hutsegiteen espedientea bi aleetan beteko da dokumentu guztietan, eta bat Entitatearen artxiboan geratuko da.

- a) Prozedura salaketa formalagatik edo ofizioz hasiko da, Entitateak egintza zigorgarri baten berri duenean.
- b) Lehendakariak karguen orri bat egingo du eta beharrezko bermeekin jasoaraziko zaio ustezko arau-hausleari; honek 15 eguneko epean erantzun ahal izango du, jaso duenetik zenbatzen hasita.
- c) Bi idazkiok, beharrezko aurrekinekin, Gobernu Batzordearen esku utziko dira, eta honek egin beharrekotzat iritzitako ikerpenak burutu ostean, egingo den lehen bileran emango du dagokion erabakia.

VII. TITULUA: KITAPENA, BATEGITEA ETA ZURGAPENA

56. ARTIKULUA. KITAPENA

Entitateak horretarako bildutako Batzar Orokorraren erabakiz ondorengo arrazoi hauetako batengatik desegin daiteke:

- a) Bere xede edo helburu soziala desagertzean.
- b) Atxikitako taldeak desegin edo desagertzeagatik edota Bazkide Oso edo Arruntak desagertzeagatik.
- c) Beste Entitateekin bat egiteagatik edo zurgatuak izateagatik.
- d) Bazkide Eratzaileen edo Gobernu Batzordearen eskaera arrazoituagatik eta horretarako ez ohiko bilkuran Batzar Orokorrak hartutako erabakiz. Erabaki hori baliagarria izateko, Batzar Orokorraren kideen botoek aldekoak izan beharko dute, indarrean dagoen legeriaren eta Estatutu hauetan ezarritakoari jarraiki.
- e) Entitateari onartutako baimen administratiboen kontraerabakiarengatik.
- f) Indarrean dagoen legeriak edota Estatutu hauek beharrezkotzat ezarritako desegite-arrazoiren batengatik.

Entitatean kitapena egiteko nahitaezkoa izango da sortutako prestazioak banaka bermatzea eta bazkide oso edo arruntei sortutako eskubideak beste Entitate, Erakunde edo toki batean sartzea, Aurreikusitako kontingentziak ordaintzea bermatzeko; aldez aurretik amaierako eta kitapenerako eragiketak burutzeko beharrezko baliabideez hornitu beharko da. Kitapen-batzordea arduratuko da beharrezko tramiteak betetzeaz. Entitateko bazkide bakoitzari, kitapen-balioa aplikatuko zaio, eta kitapena ezarritako konpromisoei erantzunez burutuko da. Baliabideetatik zerbait sobran geratuko balitz, prestazio soziala helburutzat duten Entitate edo erakundeei bideratuko zaie edo beste erabileraren bat emango zaie, Gobernu Batzordearen proposamenez.

57. ARTIKULUA. KITAPEN-BATZORDEA

Entitateak kitapena burutuko balu, Gobernu Batzordeak jardungo luke Kitapen-Batzorde gisa beharrezko tramiteak burutzeko.

ALDI BATERAKO LEHENENGO XEDAPENA. PRESTAZIOAREN KOBRANTZA ESKUBIDEAREN EZAGUTZA 2010EKO MAIATZAK 1 AURRETIK IZAN DUTEN BAZKIDEAK

Prestazioaren kobrantza eskubidearen ezagutza 2010eko maiatzak 1 aurretik izan duten bazkideek biziarteko errentekin jarraituko dute prestazio ordainketa modu gisa. Errenta hauek ondorengo parametroekin kalkulatu ziren:

- Interes tasa teknikoa: %4
- Biziraupen taulak: GRM-F 95
- Mozkinetako partaidetza: urtarrilean aparteko ordainsari bat izango da, % 3,5en gaineko errentagarritasun-soberakinaren % 70ekoa, errenta horren hornidura matematikoaren gaineko erreserba zuzkitu ondoren. Errentagarritasuna urteko errentagarritasunaren eta azken 3 urteetako batezbestekoaren artean txikiena izango da, betiere biak % 3,5etik gorakoak badira. Beraz, mozkinetako partaidetzaren zenbatekoak ez du handituko biziarteko pentsioaren zenbatekoa.

$$P.H = \frac{\%70 (\text{Errent}-\%3,5)}{1,25}$$

- Ezkontideari itzultzea: %50
- 25 urtetik beherako seme-alabei itzultzea: %9 adin horretara iritsi arte

2014/12/31n kolektibo horretan 1.651 bazkide eta onuradun zeuden.

ALDI BATERAKO BIGARREN XEDAPENA. PRESTAZIOAREN KOBRANTZA EZAGUTZA 2010EKO MAIATZAK 1 ETA 2014KO ABENDUAK 31 BITARTEAN IZAN ZUTEN BAZKIDEAK

Prestazioaren kobrantza eskubidearen ezagutza 2010eko maiatzak 1 eta 2014ko abenduak 31 bitartean izan zuten bazkideek biziarteko errentekin jarraituko dute prestazio ordainketa modu gisa. Errenta hauek ondorengo parametroekin kalkulatu ziren:

- Interes tasa teknikoa: %3,5
- Biziraupen taulak: PERM 2000C, GKM-F 95 Heritozagatiko aseguratuko
- Mozkinetako partaidetza: urtarrilean aparteko ordainsari bat izango da, % 3,5en gaineko errentagarritasun-soberakinaren % 70ekoa, errenta horren hornidura matematikoaren gaineko erreserba zuzkitu ondoren. Errentagarritasuna urteko errentagarritasunaren eta azken 3 urteetako batezbestekoaren artean txikiena izango da, betiere biak % 3,5etik gorakoak badira. Beraz, mozkinetako partaidetzaren zenbatekoak ez du handituko biziarteko pentsioaren zenbatekoa.

$$P.H.= \frac{\%70 (\text{Errent-}\%3,5)}{1,25}$$

- Ezkontideari itzultzea: %60

Heriotzagatiko aseguruaren errentaren ordainketaren lehenengo 6 urteetarako betiere errenta itzulezina balitz, eta zenbatekoa une bakoitzeko Hornidura Matematikoaren urtero beherakor den ehunekoa izango da. (%60-%50-%40-%30-%20-%10).

2014/12/31n kolektibo horretan 516 bazkide eta onuradun zeuden.

ALDI BATERAKO HIRUGARRENGO XEDAPENA

Estatutu hauek baimentzeko datan biziarteko errenta geroratua duen aldi baterako finantza-errenta kobratzen ari diren bazkideei aukera emango zaie beren baldintzei eusteko edo beren finantza-errentaren hileko zenbatekoa % 6,24 handitzeko eta biziarteko errenta geroratuari uko egiteko. Aukera hori baliatzeko epea 12 hilabetekoa izango da Eusko Jaurlaritzak Estatutuak onartzen dituenetik.

AZKEN XEDAPENA. INDARREAN SARTZEA

Arautegi hau Eusko Jaurlaritzako BGAE arloan eskuduntza duen Sailak onesten duenean sartuko da indarrean.